



PRENTSA-OHARRA

Tdiferencia konpaniaren *Pizpiriñaren goiz osasungarriak* saioak hasiera emango dio euskarazko haur-programazioari, zeina Zitudadelara lekualdatu baita, maiatz eta ekaineko asteazkenetan

Zitudadelan Jostaketan programaren barruko saioa da, 18:30ean hasiko da eta sarrera librea da

Iruñeko Udalaren euskarazko haur-programazioa Zitudadelara itzuliko da aurten ere, maiatz eta ekaineko asteazkenetan, *Zitudadelan Jostaketan* programaren barruan. Oraingoan haurrendako lau ikuskizun programatuko dira, aire zabalean, maiatzaren 23an eta 30ean, eta ekainaren 6an eta 13an. Zikloa bihar abiatuko da, asteazkenarekin, Tdiferencia taldearen *Pizpiriñaren goiz osasungarriak* izenburuko saioarekin. 18:30ean hasiko da, eta sarrera librea da.

Pizpiriñaren goiz osasungarriak haurrendako saio bat da, hainbat jardueraz osatua. Hasteko, nutrizionista profesional batek eta bi aktorek lagunduta, goxokiak, fruta-piruletak eta -izozkiak egingo dira zuku naturalak erabilita. Gero, *All Sport* lana taularatuko da, hiru adiskideren istorioa kontatzen duen ikuskizuna: Pizpiriña, Vallerino eta Betiló. Pizpiriñak kirola egin nahi du, eta adiskideek lagunduko zutela esan bazioten ere, aitzakiak asmatu eta asmatu ari dira harekin ez joateko. Amaitzeko, irakasle batek dantza-saio bat gidatuko du, eta jolas eta koreografia dibertigarriak egingo dira *All Sport* antzezlaneko pertsonaiekin batera. Maite Redínek eta Adriana Olmedok sortu dute proiektua, eta Ainhoa Ruiz, Iker Bengoetxea eta Eva Azpilikueta dira protagonistak.

Tdiferencia 2012an sortu zen, arte eszenikoetan ibilbide luzea zuten bi nafar konpainia elkartzean: XXLespectáculos eta Solita Intencione. Orduz geroztik ekoizpen ugari taularatu dituzte, familiendako zein helduendako, eta haietan sentiberatasun berezia agertu dute generoarekin, bateragarritasunarekin eta gaztediarekin zerikusia duten gaiak jorratzeko orduan.

Eva Azpilikueta eta Ainhoa Ruiz Nafarroako Antzerki Eskolan ikasiak dira, eta 2006an sortutako TDG Laperola antzerki konpainiako kide izan dira. Konpainiak sorkuntza kolektiboa du ardatz, *Me quiero vivir* antzezlanak kasu. Halaber, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako *Antzerkiaren Gauza Miragarriak* proiektuko eskola-bisitetan parte hartu du. Iker Bengoetxea bikoizketa-aktorea eta abeslaria da 2003az geroztik. Hainbat estilotako bandatan abeslari

1. orrialdea, (e)tik 2





aritzeaz gain, urte horretan ere Iruñeko Orfeoian sartu zen eta kantu lirikoarekiko interesa pizten hasi zitzaion. Beste lan eszenikoen artean, Golden Apple Quartet & Kanpingags-ek ekoitzi eta zuzendutako musika-antzerkiko ikuskizun hauetan aritu izan da: *Luisa Fernanda*, *L'occasione fa il ladro*, *Figaroren ezteiak*, *La Bohème* eta *Galipotx*, *Karabas* eta *Goibel*.

EUSKARAZKO HAUR PROGRAMAZIOA. ZIUDADELA. MAIATZAK 23 ETA 30; EKAINAK 6 ETA 13

- **Maiatzak 23, asteazkena. 18:30**
 - **TDiferencia**
 - *Pizpiriñaren goiz osasungarriak*
 - 3 urtetik gorako haurrendako ikuskizuna
- **Maiatzak 30, asteazkena. 18:30**
 - **Panta Rhei**
 - *Astokillo Circus*
 - Adin guztietako jendeari zuzendutako ikuskizuna
- **Ekainak 6, asteazkena. 18:30**
 - **Dindaia Fundazioa**
 - *Dindaikale, jolas eta tailerrak*
 - Adin guztietako jendeari zuzendutako ikuskizuna
- **Ekainak 13, asteazkena. 18:30**
 - **Kiki, Koko eta Moko pailazoak**
 - *Irriparra barra barra*
 - Adin guztietako jendeari zuzendutako ikuskizuna

Iruñean, 2018ko maiatzaren 22an

